

III - BESTE ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

EUSKO JAURLARITZA

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako Lurralde Ordezkaritza

Arabako oinetakoen merkataritzaren sektorearen hitzarmenetik eratorritako akordioa

Ebazpena, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko Laneko, Enplegu eta Gizarte Politiketako Arabako lurralde ordezkarirena. Honen bidez ebazten da, Arabako Oinetakoen Merkataritzaren Sektorearen hitzarmen kolektiboko atxikitze-akordioa erregistratu, gordailu egin eta argitaratzea. Hitzarmenaren kodea: 01000335011981.

AURREKARIAK

2016ko urriaren 19an aurkeztu da, Ordezkaritza honetan, aipatutako hitzarmen kolektiboko paritaria batzordearen akta, enpresaburuen "Federación Alavesa de Empresarios de Comercio y Servicios" eta langileen ordezkariek UGT, 2016ko irailaren 14ko negoziazio-mahaian sinatutakoa.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa. Langileen Estatutu Legearen 90.2 artikulua, urriaren 23ko 2/2015 Errege Dekretu Legegilea (2015eko urriaren 24ko BOE) aurreikusten duen eskuduntza lan agintaritzari honi dagokio, apirilaren 9ko 191/2013 Dekretuko 19.1.g artikulua –Enplegu eta Gizarte Politiketako Saileko egitura organika eta funtzionala ezartzen duena (2011ko apirilaren 4ko EHAA)- dionarekin bat etorritik eta urtarrilaren 25eko 9/2011 Dekretuarekin (2011ko otsailaren 15eko EHAA) eta maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretuarekin (2010eko ekainaren 12ko BOE) – hitzarmen kolektiboen erregistroari buruzkoak- lotuta.

Bigarrena. Hitzarmen kolektiboaren paritaria batzordeak hartutako akordioa aipatutako Langileen Estatutuari buruzko Legeko 88, 89 eta 90. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki sinatu da.

Honen ondorioz,

EBATZI DUT

Lehenengoa. Euskadiko Lan Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroko Arabako Lurralde Bulegoan erregistratu eta gordailatzeko agintzea eta aldeei jakinaraztea.

Bigarrena. ALHAOn argitara dadin xedatzea.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko urriaren 27a

Arabako lurralde ordezkaria
ÁLVARO IRADIER ROSA

Arabako oinetakoen merkataritzaren arloko hitzarmeneko batzorde paritarioaren akta

UGTk ordezkatzeko langileak, eta Merkataritzako eta Zerbitzuetako Enpresaburuak Arabako Federazioak ordezkatzeko enpresaburuak.

Gasteizen, 2016ko irailaren 14an, Merkataritzako eta Zerbitzuetako Federazioaren lokaletan, bilera egin du Arabako oinetakoen merkataritzaren arloko hitzarmeneko batzorde mistoak, honako gai hau joratzeko:

Hitzarmen kolektiboaren 6. artikularen interpretazioa

Hitzarmeneko batzorde paritarioari planteatu zaio 6. artikularen interpretazioa, uztaileko azken bi larunbatetan eta iraileko lehenengo bietan lan egiten dutenentzako konpentsazioa dela-eta; izan ere, artikuluko horretan ageri diren taldeak ez datoz bat soldata-taulako taldeekin.

Testua ikusirik, aldeek honako hau argitu nahi izan dute:

1. Behinola lanbide-kategorien multzokatzeko batek aldatu egin zuen soldata-taulan ageri diren taldeen hurrenkera kronologikoa, eta horregatik, egungo testuan, ez datoz bat hitzarmenaren 6. artikuluko taldeak taulako taldeekin.

2. Testuan ageri den II. taldea IX. taldearen parekoa da, eta kategoria hauek biltzen ditu: establezimenduko arduraduna, ofizial administraria.....

XIII. taldea XI. taldearen parekoa da, eta kategoria hauek biltzen ditu: saltzailea, kutzazaina.....

XIV. taldea XII. taldearen parekoa da (langile espezialista, peoia, kutzako laguntzailea.....).

3. Aipatutako diru kopuruak, finkatu diren horiek, adierazitako arratsaldeetan benetan lan egindako ordu bakoitzeko diru kopuruak dira.

Hori sinatzen dugu, Gasteizen, goian adierazitako lekuan eta egunean, eta CARI ahalmena ematen diogu hitzarmenaren interpretazio hau Arabako Lan Ordezkaritzara igortzeko, erregistratu eta argitaratu dadin